

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 1064** *Huts-zuzenketa, errege lege-dekretu honena: 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.*

Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua argitaratu zen 2020ko abenduaren 31n *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, 341. zenbakian, errege lege-dekretu haren bidez Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzeko; bada, hutsak aurkitu ditugu testu horretan, eta honen bidez zuzentzen ditugu:

126782. orrialdean, azken xedapenetako bigarrenaren Lau apartatuan, hau dio: «Lau. Hogeita bosgarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela geratzen da idatzita: "Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua enpresa-erakunde publikoari aplikatu beharreko araubide juridikoa"». Baina hau esan behar du: «Lau. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela geratzen da idatzita: "Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua enpresa-erakunde publikoari aplikatu beharreko araubide juridikoa."»

126782 orrialdean, azken xedapenetako bigarrenaren Bost apartatuan, hau dio: «Bost. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela geratzen da idatzita: "Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. ICEX España Exportación e Inversiones enpresa-erakunde publikoari aplikatu beharreko araubide juridikoa"». Baina hau esan behar du: «Bost. Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela geratzen da idatzita: "Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. ICEX España Exportación e Inversiones enpresa-erakunde publikoari aplikatu beharreko araubide juridikoa."»